

Foru Aldundiak aurrera jarraituko du Aguraingo arazketa hobetzeko lanetan, eta kolektore berriak eraikitzen hasiko da

Gobernu Kontseiluak esleitu ditu lanak, eta 1,1 milioi euro inbertituko ditu horretarako

Gasteiz, 2020ko irailaren 15a. Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak onespena eman dio hondakin urak hirigunetik industrialdeetara eramango dituen eta eraikitzen ari diren kolektore sare berria eraikitzeko obren esleipenari.

Aldundiko Ingurumen Sailak guztira 1.125.350 euro inbertituko ditu proiektu honetan, zeinari esker, eta 2,6 kilometrotako hoditerien bidez, Aguraingo hiriguneko ur guztiak HUA berrira eramango baitira; izan ere, modernoagoa da eta saneamendurako eta arazketarako gaitasun handiagoa dauka.

Egun dagoen udal araztegia ez da nahikoa, kontuan izanda udalerrriak zer neurri daukan eta bizilagunek eta industria jarduerak zer arazketa premia daukaten. Horregatik, HUA berriak –eraikitzen ari dira– udalerriko bizilagunen eta Galzar eta Aguraingo industrialdeen hondakin urak bilduko ditu. Hartara, batean bilduko dira bi isurketa guneak, hark eraginkortasun eta edukiera handiagoak ditu-eta.

Erakundeen arteko akordioa

Aguraingo saneamendu eta arazketarako irtenbidea 2017an adostu zuten, Arabako Foru Aldundiak, URAk eta Aguraingo Udalak, hitzarmen bat sinatuta. Horiek horrela, 2021eko udaberrirako aurreikusten da eraikitzen amaituko dela araztegiaren lantegi berria URAren kontura. Oraingoak baino ia hiru aldiz edukiera handiagoa izango du, eta 2040ko ibilgu eta zametarako proiektatua dago. Hartara, Zadorraren ibilguaren kalitatea hobetuko da Ekialdeko Lautadaren eremuan.

Gaur goizean Arabako Aldundiak eman duen aurrerapausoari esker, Aguraingo ibilgu guztiak (hiri zona eta industria zona) araztegi berrira lotzeko lanak hasiko dira.



Prentsa Oharra Nota de Prensa

Oraindik hustubide kolektore bat dago eraikitzeke, hau da, urak araztuta eramango dituen Zadorraren ibilguraino. Jardun hori URAk hartuko du bere gain, eta araztegi berria gauzatzeko obren barruan sartuko da.

